

The Time Machine Soup
Santos Bregaña Etxeberria
2023ko otsaila

ZOPA ETA HIRIA

Antzina sua etxekotu, eta gordinetik eta egosira igaro zenean, lehen urratsak egin ziren elikadura higienizatua eta kozinatua izateko. Eltzekoa, salda, zopa, alde horretatik, aurrerapauso handia dira zibilizazioan. Ur irakinak bakterioak eta germenak ezabatzen ditu, eta, horrela, gaitzak saihesten dira, haragiak, begetalak eta arrainak biguntzen, eta errazago irents daiteke, digestioa hobetuz, masailezurren ahaleginik gabe, eta burezurraren eta garunaren garapena sustatuz.

Kultura gastronomikoaren barruan, eltzekoa, zopa, funtsezkoa da eguneroko elikaduran. Plater gehienak prestatzeko oinarria eta mahaiko leitmotiv-a. Hasieran, zibilizazioaren elikagai motorra egosi zen antzinako eltzean, magia, farmazia eta gastronomia gauza bat eta bera ziren.

Eltzea, etxean betiko egosten den zoparekin, etxearen erdiko suan, eta, haren inguruan, bizitza tradizionala garatzen lehen garaietatik: horra hor kulturaren erdigunea. Hiria, kolektibitate gisa eratuta, etxebizitzak, etxeak, suak eta zopa-ontziak elkarren ondoan jartzeko prozesua da.

Goporraren, zopa-ontziaren sorrera, amaren, haren sabelaren eta bularraren betiketze sinbolikoa izateaz gain, biltegi-modu bat izan zen, eta, beraz, denbora asmatzeko modu bat: Eskuak askatuta —elikagaiari eusteko keinuan, mugitzen eta bilatzen jarraitzea behartzen zuena—, gizakia, azkenean, gelditu ahal izan zen. Alea edo harrapatutako ehiza, biltegitratuta edo ontzian kozinatuta, lekuaren erdigunea izan ziren, eta bizileku bat ezarri zuten, sua, komunitatean hiri bat hasteko etxea.

Gure mendebaldeko zibilizazioaren jatorrian, Delfosko onfalosa unibertsoaren erdigunea zen greziarrentzat, gopor alderantzikatuaren forma zuen zilborra, Kronos denboraren jainkoaren porrotaren sinboloa, Zeus bere semeak garaituta. Betilo horrek kateen tailuak ditu, eta, hor, denbora sinbolikoki harrapatuta, eta bi arranok koroatzen dute, Zeusek unibertsoaren mugetatik bidaliak gurutzatzen ziren tokian munduaren erdigunea finkatzeko. Sinbolo horiek agerian uzten dute antzinako erlijio bat, matriarkatuarena, eta haren oihartzunek durundi egiten dute Parmenidesen poeman, eta, era berean, bat egiten dute augureen tradizioarekin, hau da, hegaztiak basoko soilgune batean, tenplu batean (denbora) egindako hegada irakurtzeko erritualaren bidez hiriak sortzeko tradizioarekin.

Espiritualtasunaren irudikapena den txoriak, arima gisa, mundu material eta espiritualen artean bidaiatu dezake, eta, beraz, gizakiekin eta jainkoekin komunikatu. Migratzaileak, gai dira beren bidea desegiteko. Beren joan-etorriak urtaroak markatzen ditu, ziurtasunak ematen dizkigu klimari buruz, esaterako, negu gorriari aurrea hartuz. Sarritan V edo A itxuran egiten dute hegan, eta forma harrigarriak eratzen dituzte multzoka, adibidez, arabazozok edertasun handiko grafiak osatzen dituzte. Agian horregatik gure arbasoek arrazoizkotzat jotzen zuten etorkizuna zehaztea beren hegaldien formatik abiatuta.

Antzara-pate magikoa

Mendebaldeko kokaguneen sorrera-errituan, batez ere greziar, etruriar eta erromatarretan, sinesten dute "jainkoaren borondatea" zenbait animalia bidez ematen dela aditzera erdigune bat ezartzeko. Gune horretatik, hiri berriak, "polis-ak" bere geometria urbanoa garatuko du, jainko horiek aukeratutako leku sakratutik.

Leku hori sakralizatzeko animalia sakratu bati jarraitzen zioten: otso bati, okil berde bati eta, Erromaren garaian, berriz, hainbat txoriri. Igarlearen, augurarean lana zen goiko mezu horiek interpretatzen jakitea.

Zertan datza sorrerako erritu antzinako hori? Apaiz edo magistratu batek, augure izenekoak, zerua arakutzen du hegaztiak behatzeko egintza batean, "contemplatio" izenekoan. Lurraren gainean edo goratuta, lau zatitan banatutako egitura karratu edo zirkular batean, "tenplu" batean. Horrek zehazten du denborarekin, kontenplazioarekin eta leku sakratuarekin edo, gaur egun bezala ulertuta, tenpluarekin duen lotura.

Augure apaizak, kontenplazio-espazio bat marrazten du, bere makilaz lurrian edo keinuak eginez airean, eta denboraren poderioz kultu-leku bat bilakatuko da: Jatorriz hutsik dago (basoko soilgunea), eta geroago eraikin bat izango da, norabide kardinalak markatzen dituen gurutze-oinplanokoa: iparraldea, hegoaldea, ekialdea eta mendebaldea.

Augurarean kontenplazio hori itxaronaldi bat zen, erne barnera biltzeko modu bat, zeruko zeinuak ez galtzeko: mirari eta aingeru-seinale horiek, bakarrik maila goreneko egoera espiritualetan hauteman daitezkeenak. Espero da seinale bat, aingeru bat, hegazti-itxura hartzen duen figura hegodun bat. Askotan arranoa izaten da mezulari jainkotiar hori; tximista eta trumoa ere izaten dira. Jainkoaren borondatearen agerpenak, lurrian izan ditzakeen agerpenen bidez eginak, zeruaren ekintza eraldatzaileak lurraren gainean.

Geroago, "aruspize" edo gibelaren igarleak auguria zeraman hegaztiaren erraiak erauzten zituen; goitik behera irekitzen zuen, gibela zatika banatzen zuen, eta haietako bakoitzari jainkotasunak ematen zizkion. Atal horien orakulu-zeinuak irakurtzeak zehazten zuen behin betiko komenigarriak ziren sorrera-erritulerako. Arranoak Prometeoren gibela irensten du beti, zigor gisa, jainkoei suaren sekretua lapurtzeagatik; eta aruspizeak zeruan zeinuak marrazten dituzten hegaztien gibela irentsiko du. Pate magikoa, V itxurako formazioarekin hiri berria non sortu behar den adierazten duten antzarena? Azken finean, foie grasa egiteko ezinbestekoa den gibekeko esteatosia gaitz bat da, antzarek beren buruari eginda, hegaldi luzeetarako energia biltzeko.

Erritu horretatik aurrera eta aldarea lortu ondoren, agrimentsoreak hiriaren ardatz nagusiak marrazten zituen, "kardoa" eta "dekumanoa", iparretik hegora, ekialdetik mendebaldera doazen lerroak, eguzkia haien inguruan jiratzen baita. Hiriaren bilbearn transposizioak ez zuen zertan bete koordinatu horiek literalki; klimatologia, geografia-ezaugarriak, nagusi ziren haizeak, osasungarritasuna eta beste elementu batzuk ere hartzen ziren kontuan kokapena negoziatzeko.

Une batez sutara itzuliz, gure euskal unibertso txikian, "omphalosen" konstelazio bat dugu, eta korta edo "sel" esaten diegu. Lurralde zirkular bat definitzen duten harriak dira; eta, hasiera batean, abeltzaintzarako erabiltzen zen lurra, lur-jabeen, militarren eta, batez ere, elizaren gozamenetarako. Erromatarren ortogonalitatearen guttiz kontra dagoen forma honek zirrikitu basatiak uzten ditu, aprobetxamendu industrialik gabekoak, haietan bizitza etxekotutako arlotik kanpo zabaltzen baita. Berritzailea litzateke atzera begira jarri eta pentsatzea lurraldean bizitzeko modu horrek agian aukera emango lukeela hiria eta landa-aldea behar bezala urtzeko. Zilbor-harri horien gainean, artzainek antzinako etxolak egin zituzten duela mila urte baino gehiago, eta, errusiar panpina baten gisa, etxeak eraiki eta suntsitu ziren ondoz ondo, gure "baserriak" azaldu arte. Gure abizen asko harri horien izenak dira. Zirkulu misteriosuetan egin ziren zopa horien emaitza da bizirik dirauen mamia edo gatzatua, ardi-esnez egindako zopa, urki-zurezko gopor makurtu batean irakiteak ematen dion harri-zapore txigortua gorde duena. Baserriak sagardoa egiteko makinak omen ziren, sagar hartituek, eta gure ahaideak zirrikituetan bizi ziren.

Hartzidura

Baina suaren aurretik hartzidura izan bazen? Izan ere, ez dugu ahaztu behar zopa hitza saldan bustitako ogiari dagokiola. Zopa ogia da, ez likidoa. Eta jatorrian ogia, hainbat zerealekin hartzitua, ezin zen bereizi jatorrizko garagardotik, likidoa baino solidoagoa baitzen. Agian horregatik, aditu batzuen ustez, hartzidura alkoholikoa da hirien benetako jatorria. Hala, hirien jatorria ez litzateke izango sua, ez egostea, ez txoriak, garagardoa baizik. Egia esan, arratsalde arrunt batean gure hiriak ikusita, tabernaz lepo, milaka herritarrek alkohol bizigarria atsedetik gabe edaten, esan liteke hipotesi hori ez dela ezinezkoa. Agian garagardoak tarte batez sinestarazten digu itzuli garelako hirien aurrekoa den egoera basa horretara, non, batez ere, ez baikinaren denboraren preso.

Hirietako elikaduraren etorkizuna

Egile batzuek gure landa-aldeen suntsipenaz ohartarazten digute. Europan ia ez dago hirietarako elikagaiak ustiatu, ekoizti edo biltzeko ez den tokirik. Paradoxikoki, basatiaren babesleku bihurtu dira hiriak. Landa-aldean, intsektuak, hegaztiak eta ugaztunak desagertzen ari dira; hirietan, berriz, bizirik irauteko aukerak izaten dituzte. Horrek agerian uzten du "naturak" gaur egun bizitzarekiko duen etsaitasuna. Hiperfertilizatua eta pestizidaz eta fitosanitarioz kutsatua, leku pozoitsua da animalientzat.

Agian, haragia landatzea proteinen iturri agorrezina izango da, abeltzaintza estentsiboa suspertzeko irtenbidea. Era berean, teknologiak eta zientziak irtenbideak emango dizkiete mantenugai guztietako laborantzako elikatze-iturriari. Zalantzarik gabe, horrek aukera emango luke natura-ondarea eta bizitza berreskuratzeko. Gehiegi ongarrizko politikak eta fitosanitarioak bereizi gabe erabiltzea dira, ziurrenik, aurrean dugun arazorik handiena. Arazo horrek isil-isilik suntsitzen du planeta, hiriak barne.

Zopari dagokionez —gure TMS proiektuko 13. zenbakia, etorkizuneko zopa—, irudikatzen dugu zopa banatzeko makina bat, osagai liofilizatu infinituekin, irudika daitekeen edozein zapore lortzeko, elikaduraren ikuspegitik bizitzeko behar den guztiarekin, doako makina banatzaileak, jakina, ziurrena MATRIX izena izango dutenak.


TMS

The Time Machine Soup denboraren makina bat da, eta bidaia bat eskaintzen du iraganera, hamabi estaziotatik igarota. Hirietako bakoitzean gelditzen gara, garai bakoitzeko ohituren arabera egindako baina garaikidetasunetik interpretatutako zopa batekin goatzeko. Dastamenaz gain, ikusmenak, entzumenak, ukimenak eta usaimenak ere garrantzi handia dute bidaia honetan, eta haren gasolina erraz-erraza eta etxekoa den osagai bat da, hain zuzen, zopa. Makina hau iraganerako bidean hasi aurretik, motorrak berotzeko asmoz, gonbidatuek proiektuaren gakoan berri izango dute kopa ardo bat dastatzen duten bitartean:

1. TMSk hizpide du emakumearen sukaldaritzaren, familiaren kulturaren transmisioa, amonaren kultura... Gizonaren sukaldaritzaren aurrean, chefaren aurrean, figura hori armadan jaio baitzen tropak hornitzeko, ez familiari ongizatea emateko.
2. Sua, egostea, zopa, lehen higienizazioa. Egostea funtsezkoa da gizakiaren garapenean, elikaduraren bidez: asepsia, germenak ezabatzea eta landareak eta proteinak digeritzeko moduan prestatzea. Gizona Homo sapiens da, suaren, egostearen, zoparen asmakizunari esker.

3. Denbora, Oteizaren laurogei amonak. Amonen eta biloben arteko 60 urteko jauzietan, kulturaren transmisio berezi honetan, 80 amona baizik ez dago gu eta kobazuloen artean

4. Betiereko zopa, beti irakiten, ehizatu, etxekotu eta aurkitzen diren produktuak gaineratzen. Aldaketa sozialak, aldaketa teknologikoak, iraultzak.



Fitxa artistikoa / Proiektuaren kredituak:

Erakusketa & happening ludikoa, denboran barrena bidaiatzeko erregresioan, hamabi zopa historikoren zapoaren bidez.

Santos Bregaña & Hika Teatroa, honako hauekin lankidetzan:

Xabi Erkizia, soinua. Harkaitz Cano, testuak. Iñigo Cojo, errezetak.

Frédéric Duhart, antropologia. Iban Garate, antolakuntza.





Molitoris, Ulricus. De Ianiis et phitoniceis mulieribus Teutonice vnholden vel hexen, (Reutlingen- Otmar, 1489), fol. 15r.



Delphi, Greece. The Omphalos of the Via Sacra. According to the ancient Greek mythology, this is the landmark of the center of the World. Licencia Creative Commons.



The Brothers, Disputing Over the Founding of Rome, Consult the Augurs, pl.7 from the series The Story of Romulus and Remus. 1575



Zopa-ontzia. Ilargia. Bilduma. Antzinako jainkosa. Santos Bregañaren diseinua. José Luis López de Zubiriaren argazkia. 2016



Nabarnizko elizateko termino eta korten mapa (Bizkaia), 1767. Espainia: Kultura Ministerioa. Real Chancillería de Valladolid artxiboa. PLANOAK ETA MARRAZKIAK. BANAKAPENA- BI 0482.



THE TIME MACHINE SOUP

SANTOS BREGAÑA:



Santos Bregaña, azken urteotan, batera uztartu ditu Atelier Laia fábrica de perplejidades-eko diseinatzaile eta arte-zuzendari gisa duen lanbidea, lan artistikoa, eta Iruñeko eta Donostiako arkitektura-eskoletako eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakaskuntza-lana.

2002an, kultura gastronomikoa ezagutarazten duen TABULA argialetxea zuzendu zuen. 2008an, Art Director Club NY-ek emandako Sphere saria jaso zuen, Mugaritz jatetxearentzat hasieratik egin zuen lanagatik. 2016an, "Time Machine Soup" sortu eta zuzendu zuen, Donostia Europako Kulturaren Hiriburua zen garaian. Azken urteotan, diseinu eta arteko zuzendaritzalana egin ditu Mirazur jatetxerako, zeina munduko jatetxerik onena den 50Best zerrendaren arabera. Haren lanak banaka eta taldeka erakutsi dira Dublin, Paris, New York, Milan, Atenas, Berlin, Helsinki, Mosku, Tokio, Miami, Washington, Seul, Toronto, Mexiko Hiria, Madril, Sao Paulo, Lisboa, Manila eta beste hiri batzuetan. Haren sorkuntzarik garrantzitsuenetako batzuk Bartzelonako Disseny museoak erosi ditu.